

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2011

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak EA Eren Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiaren kontuen fiskalizazio lana mamitu du, epaitegia arautzen duen 1/1988 Legeak agindutakoari jarraiki. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek eta horietako bik baterako boto partikularra egin dute.

Fiskalizazio-lanak kontuak egitean erabilitako kontularitzako printzipioen azterketa eta 2011ko urtean zehar administrazioaren aribidean legezko arautegia bete izanaren azterketa besarkatu du.

Legea betetzeari dagokion atalean, erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du EA Eren Administrazio Orokorrak legezko arautegia betetzeari dagokionez; alabaina, hainbat salbuespen jaso ditu.

Administrazioko kontratazioari dagokionez hainbat lege-hauste azaleratu dira, besteak beste, obra kontratu batean onartutako aldaketen ondorioz hasiera batean esleitutako aurrekontua % 35,85 gehitu izana; horrek lehia printzipioak urratzen ditu.

Halaber, Gobernu Kontseiluak arautegian finkatutako salbuespenezko prozedurari jarraiki, obra-kontratu, hornidura eta zerbitzuak eta bestelakoak kontzeptuan 29,4 milioi euro baliokidetu dituela azpimarratu da, aurrez Ekonomia Kontrolerako Bulegoak kontrako txostena jaulkia zuela. Hona hemen ez-betetze nagusienak: publizitate eta lehia printzipioak ez betetzea; behin epea iraungia dela zerbitzua ematen jarraitzea; kontratuaren xedea bidegabe zatikatzea; eta dagokion administrazio espedientea izapidetu gabe aldaketak egitea.

Diru-laguntzei dagokienez, guztira 24,2 milioi euro eman dira zuzeneko diru-laguntzetan, indarreko arautegiak agintzen duen apartekotasun eta/edo deialdi publikoa deitzeko ezintasunaren betekizunak urratuz.

Ekitaldirako onartutako aurrekontuek ez dute sarrera eta gastuen lurraldearen araberako sailkapena barne hartzen eta honek 1/1994 Legegintzako Dekretuaren 57. artikulua urratzen du.

Epaitegiak, Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak aurkeztutako Kontuari dagokionez, alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten duela uste du; alabaina, ekitaldi itxierako Diruzaintza Geldikina 274,6 milioi euroan murriztu behar litzateke, 2012an emandako baimenena, gauzatu eta erabili gabeko mailegu batenak; baita zor publikoaren jaulkipen batena, 2011n eskubide aitortu modura erregistratu zirenak.

Atal honetan aipatzen da EA Eren Administrazio Orokorraren eta Estatuko Administrazio Orokorraren arteko desadostasunak hainbat gaietan 2007-2011ko bosturtekorako Euskadiren Kupoa bereizteko metodologiari dagokionez sortutakoak eta txostena idatzi den datan ebatzi gabe daudenak.

Barne Kontrolerako Sistemiei eta Kudeaketa Alderdiei buruzko Irizpenen atalean administrazioaren jarduerari dagozkien beste alderdi batzuk barne hartu dira, hala nola, aurrekontuak eta kontabilitatea, langileria, kontratazioa, diru-laguntzak e.a. HKEEK hobetu edo zuzentzeko gai direla irizten direnak.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEK 2008-2011 aldian honekin lotutako parametro guztien bilakaera xehetasunez jaso du, hots, diru-bilketa, jasotako transferentziak, gastuak, aurrezki gordina, diruzaintza geldikin erabilgarria, erabilitako zorra, e.a; berebat, aurrekontu egonkortasunari buruzko legeen gaineko hainbat irizpen egin ditu.